

## **EUSKAL IRRATIAK (KRITIKA)**

### **Sarrera**

Azken urteotan euskarazko irratien garrantziaz jabeturik, itxaropentsu geunden eta amets politak ere egin genituen, batez ere euskararen eta Euskadiren aurrerapenerako emaitz onak ekarriko zituztelakoan.

Gure itxaropen horri irratiek erantzun dioten ala ez ikusteko, balantze bat egiteko ordua badela uste dut.

Lan honen helburua ez da euskarari buruz (batua edo eta euskalkiak...) ihardutzea, ezta erabiltzen den euskararen nolakotasuna, kalitatea aztertzea ere. Irrati bakoitzaren nortasuna eta jerra dira erakutsi nahi nituzkeenak: lehenen eta batez ere euskarari begira, eta gero Euskadiri.

Azken bost urteotako euskal irratiak ondo ezagutzen ditut, eguneroko entzule leial naizen aldetik. Euren aurrerabide edo garapena ernai jarraitu izan dut.

Euskal Herriko Hego eta Iparraldean euskara gutxi-asko erabiltzen duten irratiak mordotxoa dira. Baina nik bereziki lau haun kritika egingo dut: *Euskadi Irratia* (Donostia), *Loiola* (-*San Sebastian*), *Bilboko Herri Irratia* (FM) eta *Arrate*. Segura Irratia ez dut ezagutzen, Zornotzan ez delako entzuten (eta udal-irratiak

ez ditut aipatu ere egingo...). Bilboko Euskadi Irratiari dagokionez, hobe isiltzea: irrati honi elebiduna deitzea adarra jotzea ez bada, mutilak...! Euskaraz gutxi baino gutxiago egiten du. Eta ez da hori txarrena, irratiari darion erdal-español kutsua, arrotz ai-dea baizik. Hau ez da ulertzekoa! Porrota?

### A. Euskal irratiien gorabeherak


Euskal irratiiek azken urteotan euren gorabeherak izan dituzte: batzuk gorantz egin dute eta beste batzuk beherantz. Ezberdinak dira bai euren izaeran, baita eskaintzen dituzten emanaldietan ere, diru-aurrekontuak ere guztiz ezberdinak baitira batzutan eta bestetan.

#### 1. Euskadi Irratia (Donostia)

Emanaldi guztia euskara hutsean egiten dituen irratia dugu.

Alde onari begiratu, gauza asko esan genitzake. Adibidez, irrati honetan gehienetan euskara ego-ki eta polita erabiltzen da. Programa entretenigarri eta alaiak ditu, baita atsegingarriak ere; jende atsegingarri eta ona duelako izango da, ziur asko.

Baina garrantzitsuena zera da: gau guztiak euskara hutsean



erabiltzen dituela. Horregatik normalizazio osoan sartu den euskal irrati *bakarra* dela esan genezake. Polito egina. Eta Euskal Herrirako garrantzitsua. (Ez da orain nire asmoa programa bakoitzaz ihardutea).

Hala ere irrati hau hobetzeko, dituen hutsune eta akatsak, beronen alde negatiboa isiltzea ez litzateke inorentzat mesedegarri. Esan liteke SER katearen hutsak ezin hobeto beregandu eta kopiatu dituela. Hau da, erdirakoi edo zentralista izatea probintziakeriarekin batera.

Nik jakin nahi nuke Euskadi Irratia Donostian *Gipuzkoara*-ko egina eta Euskal Herri osoan entzuten dena den ala Donostian *Euskal Herrirako* egiten den irrati den. Bigarren kasu hau dela uste dut. Beste aldetik ulertzekoa da eta ez nuke txartzat joko, Donostian egina bada, Gipuzkoara piska bat gehiago begiratzea. Dena dela, Donostian Euskal Herrirako egiten den irrati bada, kontuz jokatu beharra dago inor ez mintzeko; erdirakoi-keria edo probintziakeria nabarmenik ez agertzeko.

-Adibidez, ni Bizkaiko nahiz Nafarroako entzule banaiz, ez nuke ontzat joko Realak Athletic-en nahiz Osasunaren aurka joka dezanean, irrati gizona oihuka Realaren alde ihardutea. Beste horrenbeste egin ohi da SER-en (edo eta COPE-n) Athletic-ek edo Realak Madrilen aurka jokatzen duenean, estatu osorako egiten den irratsaioak behar eta merezi duen inpartzialtasuna galduz.. Horrelako irratiei betiko boikot egitea onena. Euskadi Irratiaren ere akats hori nabari izaten da..

-Beste batzutan Elizaren aurkako zer bait nabari dela esango nuke.. gaueko orduetan batez ere. Baieztapen hau egitean, Eliza dela eta entzuten diren mesprezuzko zenbait esaretan oinarritzen naiz. Diska batzutan ere agertzen da kutsu hori. Horrekin zer irabazten du, bada, irratiak? Ala eliz-komplexuz burua hain nahaspildurik ote dute?

-Zenbait kasutan erdal disken eman beharraren eman beharrez, erdal kutsu nabarmena dario irratiari. Ondo dago era guztitako diskak ipintzea. Baina gastelaniazko eta ingelesezko disken nagu-

sitasuna nabarmenegia da.


-Irakurtzen diren zenbait artikulotan (eta berez politik diren-  
tan) gusto txarreko esamoldeak, baldar edo eta arruntegiak en-  
tzun daitezke... Lan hau idazten ari naizen une honetan bertan,  
1986-VIII-26: «joder», «popatik hartu» eta erlijio talde bat aipa-  
tuz mesprezuzko esaerak etab... Zentzunez eta entzuleekiko  
errespeto handiagoz jokatzek ez lioke inori kalterik egingo..

Honelako adibide gehiago ere aipa daitezke. Baina esanda-  
ko hauek ez dute hainbesteko garrantzirik. Xehetasun edo txiki-  
keria guztiak alde batera utziz, benetan akats larria eta kritika  
gogorra merezi duena Euskadi Irratiaren albistegintza da. Baina  
honetaz, gero, atal berezian ihardungo dut.

## 2. *Loiola Irratia*

Loiolako irrati polit eta herrikoi hau gogoko nuen; horre-  
gatik, euskara aldetik ikusita, gaur egun duen joera eta hartu  
duen norabidea be-  
ne-benetan sentitze-  
raino mingarri zait.

Irrati hau nahi-  
ko polita da, osoa eta  
herrikoi. Euskadi  
Irratiaren osagarri eta  
alternatiba izan daite-  
keen bakarra, baina  
beste tankera bateta-  
koa. Dituen ahalbide  
hauek kontutan har-  
tuz, hainbat eta min  
handiagoa ematen dit  
euskara aldetik gain-  
behera doala ikusiz.  
Zergatik doa bide  
horretatik? Zio edo  
motibo asko aurki



daitezke eta egongo dira?

Argi dagoena hau da: euskara baztertzuz doala bai kantitateari eta baita gaien kalitateari edo garrantziari dagokienez. Tamalgarria! Gaztelania nabarmenki nagusitu da. Euskara egiten da bai, baina gairik interesgarrienak, eta ordurik egokienetan ia erdara hutsean ematen dira.

Goiz eta gauerantz erdara nagusitzen da; albisteetan eta albisteen iruzkinetan (komentarioetan) erdarak ia monopolioa du; elkarrizketa eta eztabaidetan, gehienetan ia erdara hutsa eta kito; euskarazko emanaldietan ere erdarazko albisteak eta erdal diskak tartekatzen dira; eguneroko kirol-komentarioak ia gaztelania hutsean. Herrietako herriemaileak ere gehienak gaztelaniaz aritzen dira etab.

Areago oraindik: gaztelaniaz eginez gainera, erdal kutsu nabarmena somatzen da.

Batzutan Espainiako Herri Irratiarekin edo eta Bilboko Herri Irratiarekin bat eginda egon ohi da; eta ez bakarrik erdal hizkuntza bera, baita pentsakera, eta (hau harrigarria!) Euskal Herriaren aurkako pentsakera eta joera ere nabarmen agertzen du...

Nora doa Loiola Irrati maitagarri hori?

Bai, arratsaldeetan ematen ditu bi edo hiru orduko programak ere euskara eta kulturaren aldetik oso gogoko eta interesgarriak, euskal senaz, euskal bihotzaz eginak. Baina ordu horiek programazio osoan irratia giro eta joeran ikusirik, salbuespen edo parentesia dira. Irratiaren indar, giro eta joera albistegintzan agertzen dira.

Nik, azken bost urteetako entzule naizen aldetik, zera somatzen dut: euskara atzerantz doala; erdal kutsu eta giroa, ordea, indartuz (eta honekin batera espanyolismo antzeko giroa ere nabari da). «Elizaren» irratia izan arren, batzutan Eliza barregarri uzten dute haren aurkako eta fedearen aurkako diskak jarritz (hori irradi jabeari irain egitea ez bada, zer ote da?). Irratiko lan-

gileak fedegabeak edo kristau motelak, lotsatiak izanik, fedearen poz-argia aldarrikatzeko gai ez badira, gutxienez begirunea eskatzen da (eguneroko ogia beratik jasotzen baitute).

Nik ez dut Loiola Irratiko langilerik ezagutzen... baina eguneroko albistegintzan ari direnak esango nuke eta ziur asko igarri ere bai politikan zeinen aldekoak diren... baina hori ez da nire arloa eta ez dut horretan sartzerik nahi.

Albistegintzari dagokiona atal berezian adieraziko dut.

Joera tamalgarria! Beste aldetik, euskararen atzerakada eta erdararen nagusitasuna ulertzeak dira zer erizpide onartzen den kontutan hartuz gero. Ziur asko erizpide edo eragile hori *dinua* izango da. Alde horretatik, jakina, erdarak etekin hobea ematen du; errentagarriagoa da. Irratia autofinantzatzeko, zenbat eta gaztelania gehiago, entzulegoa ere ugariagoa izan daiteke, propagandak ere (gehiena erdaraz) diru gehiago emango du... Beste erdal irratiekin bat egiteak haiekiko morrontza dakar... Baina hala ere Loiolak daraman bidea, nagusitu zaion arrotz-giro, erdal-kutsu hori ulertezina da...

Egia esan, euskara eta Euskadiri abertzale aldetik begiraturaz, Loiola Irratiaren etorkizuna ilun ere ilun ikusten dut.

Beste aldetik, euskara txukun eta erraza erabiltzen dute, eta hau txalogarria da; baina euskararantz eta Euskadirantz gehiago joko balu, Euskadi Irratiari kompetentzia leiala eta onuragarria, osagarria egiteko eran egongo litzateke, baita haren alternatiba izateko eran ere. Beste irratia ez dira horretarako gai, baina Loiolakoa bai.

### 3. *Bilboko Herri Irratia (FM)*

Azken urteotan euskarazko emanaldiak gehitu egin ditu irradi honek, Bizkaiko Aldundiaren laguntza duenez geroztik batez ere.

Orain dela lau-bost urte, euskara (baita bizkaiera ere) entzuteko irrikaz, emisore honen sintonia bilatzen nuen eguerdi-





rarte, baina hain lorrin eta euskalgaizto izanik erabiltzen zuten hizkera, batez ere elkarrizketetan, emisorea aldatu eta gutxiago entzuten hasi nintzen. Euskalgaiztoaz aparte, programa ere nahiko eskasa. Orain dela urtebete edo hasita honantz, abiada berria hartu duela dirudi eta bai euskara aldetik eta bai programa aldetik ere askoz ere txukunago eta interesgarriago dihardu. Bainaoraindik zer hobetarik badute... Jo dezatela bide onetik aurrera!

Irrati honek ere euskal emanaldien orduetan gaztelaniazko albistegia tartekatzen du... Zergatik? Zergatik euskara ematen den orduan bizpahiru minututako albistegia erdaraz?

Albiste emanaldi nagusietan Loiola Irratiarekin bat eginik egon ohi da. Bilboko Herri Irratian, arratsaldeko eta gauko orduetan, ia osoan gaztelania nagusitzen da; areago oraindik: erdal-español kutsu markatua dario. Baina akats hau irrati honek lehenagotik dauka.

Bizkaiko egoera behintzat tamalgarria da; hainbat diru dagoen probintzian euskara hutsezko irratarik ez izatea, lotsagarri ere bada.

#### 4. Arrate Irratia

Arrate Irratia euskara hutsezko irratia, polita, herrikoia da eta gehienetan euskal musika alai sartzen du. Baina garrantzi-

tsuena dena euskal kutsu betea dario. Honelako irrati batek merezi du luzaroko bizitza.

Bere entzulegoa du, eta pozik dauden euskaldun entzule jatorrak; askotan pertsona nagusitxoentzat egindako irratia dirudi bere joera edo estilo aldetik. Asko dira Arrate Irratia beste irratia baino gogotsuago entzuten dutenak.

Irrati honek bere nortasun berezia du. Berari dagokion toki eta bidea aurkitu du eta hortixik doa, besteena kopiatu gabe; besteena imitatzen, haien antzera jokatu nahirik hasiko bultz, asko galduko luke, haiekin norgehiagoko aritzeko ahalbidetik ere ez duelako.

Jo dezala aurrera bere bidetik, bere izaera eta nortasunari eutsiz! Irrati apal eta txiroa, baina polita, alaia, jatorra. Txiroa dela, diru aldetik esan nahi dut. Beste irratia handiekin (adibidez, Euskadi Irratiarekin, Loiolarekin etab.) norgehiagoka hasiz gero ez luke zereginik izango.

Neurri batetan eta bere txikian ikusirik, Arrate Irratia dela, esango nuke, meriturik gehien duen euskal irratia. Parekatzerik balego, irratia honek bere medio urriz baliatuz eskaintzen duen emaitza eta Euskadi Irratiak edo eta Loiolak euren dirutza eta jende ugariaren ematen dutena aztertu beharko litzateke. Dirutzan alde handiagoa legoke ziur asko fruitu edo emaitzetan baino.

Horregatik hain diru eta medio urriz baliaturik egiten duen irratia polita ikusiz, ez litzateke zuzen eta egoki honen hutsuneak, akatsak bilatzen eta lau haizetara aldarrikatzen ihardutea.

Arrate irratia bere meritu handia du eta baita bere nortasuna ere.

### **B. Albistegintzan porrota?**

Hamar urtez geroztik gizartean eman den erabateko aldakuntza dela eta, Euskal Herriko kultur-gizonek eta Eusko Jaur-laritzako arduradunek komunikabide berriak ezartzeko asmoak azaldu zituzten. Euskaldun guztiok pozik eta itxaropentsu jarri



ginela ez dago esan beharrik. Euskadiko euskarazko irratiek egin zezaketen lanean itxaropen handiak jarri ziren. Komunikabideak euskararen aurrerabiderako tresna ezin egokiagotzat jo genituen. Madrileko albistegintzaren erdirakoikeriatik, gezurrontzi ziren haien eraginpetik aske geratu nahi genuen. Buruz eta zentzunez, egia eta erizpide zabalez, abertzaletasun ikuspegiz gauzatutako albistegintza nahi genuen.

Hauek ziren gure uste eta itxaropenak!


Bete al dira?

Espainiako irratien artean SER da nabarmentzen dena. Espainiako irratien eta bereziki SER-en jokaera eta eragina guztiz handia eta kaltegarriak gertatu dira. SER albistegintzan indar izugarria duen irratia da. Areago oraindik: Euskadiri dagokion albistegintzan ia neofacista antzekoa dela esan behar, Radio Nacional baino okerragoa. Gezurrontzi eta manipulazioaren manipulazioz Euskadiren izena ilunduta daukana; eta hau Euskadiko arlo guztietan: bai politikan (ETA dela eta, edo EAJ, edo HB etab.), bai Eleiz eta kultur arloan, baita jailetako informazio eta herri-ordenuarena ematen ere; eta hori guzti hori gutxi baillitza, baita kirol arloan ere!

Irrati berriekin albistegintzan askatasun handiagoa itxaroten eta amesten genuen. Baina zer gertatu da? Nire ustez Euskal Herriari, abertzaletasunari, askatasunari eta euskarari begira, porrot ikaragarria egin dute.

Albistegintzan edo albisteak ematean, orain Euskadi Irratian eta Loiola Irratian pentsatzen nago, gehiago azkenengo honetan (eta baita Bilboko Herri Irratian ere), nortzuk dira albisteak prestatzen dituztenak? Ez al dira SER-en eraginpean daudenak?

Nik ez dakit albistea eta eritzia, albistea eta propaganda bereizten dakiten ala ez. Ia SER-en linean doaz... Eritziak (gehienean alde batekoak) zabaltzen eta aldarrikatzen; Euskadi iluntzen (EAJ-ren kaltetan badoa, hainbat hobeto); albisteak leialki eman



beharrean, alderdikeriazko eritzien bidez jendeari «masixa» zabaltzen; gertakarien berri eman beharrean, eritzien propaganda egiten. Egia, gezurra nahiz zurrumurrua izan, berdin da Zabaldu, iraindu, beti geratuko da zerbait eta, zioen Lenin-ek.

Albistegintza entzulegoari ziria sartzea da! eritziak albistegintzat eskaintzen baitzaizkie entzuleei. Frankoren garaiko albistegintza eta SER-ena hortxe-hortxe dabilta. Orain zabalagoa eta libreagoa, baina metodo eta estilo berbera: orduan ere manipulatu eta orain ere bai. Eritziak eritzi dira eta milaka izan ohi dira; zergatik era batekoak bakarrik eman eta besteak isildu? Eta hori eguneko ordu guztietan (Gaur bertan gertatu da, 1986-VIII-26-an, lan hau idazten dihardudan bitartean. Gaia:

EAJ eta alderdiko kritikoak... Zer nahi ote dute, EAJ hondatzea? Aberria, Euskadi haustea? Baina Politikan sartzerik ez dut nahi, lan honen mezua gaizki ulertua izan ez dadin. Baina jakin nahi nuke zer dagoen albistegintza gaizto horren azpian).

Ezjakintasunagatik ote da? Eta zentzungabeen antzera, ezjakinean EFE ajentziak ematen duena itsu-itsuan irensten ote dute? Baina hainbesterainoko ezjakintasuna? EFE-k ematen duena eman bakarrik ez, hark ematen duen itxura berberaz, manipulaturako esaez edo estiloan ere bai, batzutan euskarara itzulita eman arren!

Hain kriterio eta zentzun gutxikoak ote dira, bada, albistegintzaren arduradunak? Euskaraz edo Euskadin albisteak ematea ez da, besterik gabe, manipulaziorik aske goatea...

Zentzun gabeko eta batez ere euskal-sen gabeko erizpidea nagusitzen da hemen irratietan. (ETB-n ere gertatzen da hau, baina maila txikiagoan).

Euskal irratiaren porrotik handiena albistegintzan nabari da. (Esan nahi ez badut ere, honen sustraia zcin den badakidala uste dut; adibidez, zenbait alderdi politikoren aldekoak egongo dira hor... itxuraz euskaltzaleak edo eta Euskadizaleak, baina bihotzez erdi españolistak direnak...).

EFE-ren azpian daude oso-osoan irratia; hau da, Euskadiri dagokionez, «erdi-neofacismoaren» azpian... Eta hori Euskal Herriko gizon eta emakumeen kriteriorik ezagatik ez ote da? Gal-tzaile, jakina, Euskadi!

Benetako askatasuna behar dugu eta ez itxura hutsezkoa! Buru askatuak eta ez gorbeta bakarrik aldaten dutenak!

Gauzak honela ikusiz, euskal-ajentziaren itxaropen handirik ere ez dut. Zertarako euskal-ajentzia (benetan euskalduna izanez gero bai on!) sortu, gero metodo berdina erabiltzekotan? Lehengo lepotik burua izatekotan? Zer irabaziko genuke? (Tira! euskarak behintzat irabaziko luke!).

Sortuko omen den euskal-ajentziak Espainiako EFE-ren

indarririk ez du izango, baina eska daitekeena zentzun ona, erizpide jatorra izatea. Asko gehiago ez genuke eskatuko; ezin dugu kriterio ezagatik betiko murrontzan jarraitu.

Hain zaila ote da Euskadiri eta euskarari gehiago begiratzuz albistegintzan abiada berri eta jator bat hartzea? Profesionalagoa, egizaleagoa, euskarazaleagoa, Euskadizaleagoa?

*Julen Urkiza*